


## KONTZERTUA &amp; PROIEKZIOA

CONCIERTO Y PROYECCIÓN



IRAILA

20


SEPTIEMBRE



BELODROMOA

18:00

VELÓDROMO



---

## EGITARAU • PROGRAMA

---

Augusto Algueró

### Historia de nuestro cine

- **La fierecilla domada**  
Zuz. / Dir. Antonio Román
- **El ruiseñor de las cumbres**  
Zuz. / Dir. Antonio del Amo
- **El secreto de Mónica**  
Zuz. / Dir. José María Forqué
- **Cabriola**  
Zuz. / Dir. Mel Ferrer
- **Las chicas de la Cruz Roja**  
Zuz. / Dir. Rafael J. Salvia

Alba S. Torremocha

### Los futbolísimos 2

Zuz. / Dir. Miguel Ángel Lamata

Vanessa Garde

### La boda de Rosa

Zuz. / Dir. Iciar Bollaín

Arturo Cardelús

### Dragonkeeper

Zuz. / Dir. Li Jianping, Salvador Simó

Iván Martínez Lacámara

### La casa de papel

Zuz. / Dir. Jesús Colmenar

Luis Ivars, Blanca Paloma, JP. Polo

### Parecido a un asesinato

### Caminar el tiempo

Zuz. / Dir. Antonio Hernández

Luis Ivars

### El capitán Trueno y el Santo Grial

Zuz. / Dir. Antonio Hernández

*Iraupena / Duración: 1h 15'*

---

**JUAN JOSÉ OCÓN** zuzendaria / director

**EASO ABESBATZA** abesbatza / coro

**BLANCA PALOMA** ahotsa / voz

**EUSKADIKO ORKESTRA**

---

## DOAKO SARREREN BILKETA • RETIRADA DE ENTRADAS GRATUITAS

iraila

septiembre

**13-19**

KURSAAL  
informazio postua:  
09:00-20:00

DONOSTIA TURISMOKo bulegoa (Boulevard, 8)  
Al. > Lr. / Lun. > Sáb. 09:00-20:00  
Ig. / Dom. 10:00-14:00

- Kontzertu egunean **sarrerarik balego, belodromoan jaso** ahalko dira. **En caso de disponibilidad**, se podrán retirar entradas el mismo día del concierto en el velódromo.

En la undécima edición de **Concierto & Proyección**, que se celebrará el sábado 20 de septiembre a las 18.00 horas en el Velódromo de Anoeta de San Sebastián, la **Fundación SGAE**, junto a **Euskadiko Orkestra**, muestra la mejor música de nuestro cine al **Festival de San Sebastián 2025**.

El programa incluye un total de siete piezas compuestas y adaptadas para varios trabajos audiovisuales de distinta índole:

Todo un guiño a la historia de nuestro cine con extractos de las bandas sonoras originales de las películas *La fierecilla domada*, *El ruiseñor de las cumbres*, *El secreto de Mónica*, *Cabriola* y *Las chicas de la Cruz Roja*, compuestas por **Augusto Algueró**, arreglados por **Claudio Ianni**; *Los futbolísimos 2*, película de Miguel Ángel Lamata (2018), con música de **Alba Sánchez Torremocha**; *La boda de Rosa*, dirigida por Iciar Bollain (2020) y banda de **Vanessa Garde**; *Dragonkeeper*, de Salvador Simó y Li Jianping (2023), con música de **Arturo Cardelús**; la serie *La casa de papel* de Álex Pina (2016), con música de **Iván M. Lacámara**; y las composiciones de **Luis Ivars** para los largometrajes *Parecido a un asesinato* (canción *Caminar en el tiempo*) y *El capitán Trueno y el Santo Grial*, dirigidas por Antonio Hernández Núñez (2025 y 2011).

Con entrada libre hasta completar aforo, la retirada de entradas debe hacerse entre el **13 y el 19 de septiembre** en: Centro Kursaal en horario de 9 a 20 horas, y Oficina de Donostia Turismo de lunes a sábado de 9 a 20 horas y el domingo de 10 a 19 horas. El velódromo es un escenario con capacidad para 2.700 personas, dotado para albergar todo un clásico dentro del Zinemaldia, que en 2025 cumple 73 años. El Festival se celebra del 19 al 27 de septiembre.

**Kontzertua & Proiektzioa** ekimenaren hamaikagarren edizioa irailaren 20an burutuko da, larunbata, 18:00etan, Donostiako Anoetako Belodromoan. Berriz ere **SGAE Fundazioak**, **Euskadiko Orkestrarekin** batera, gure zinemako musikaririk onena ageriko du 2025eko **Donostia Zinemaldian**.

Programak ondorengo ikus-entzunezko lan ezberdinetarako konposatutako eta moldatutako zazpi atal biltzen ditu:

Gure zinemagintzari erabateko omenaldia **Augusto Algerók** konposatutako *La fierecilla domada*, *El ruiseñor de las cumbres*, *El secreto de Mónica*, *Cabriola* eta *Las chicas de la Cruz Roja* film luzeen jatorrizko banda sonoroak aintzat hartuta **Claudio Ianni** moldatutako piezaren bidez; Miguel Ángel Lamataren *Los futbolísimos 2* filmerako (2018) **Alba Sánchez Torremocharen** konposizioa; Iciar Bollainen *La boda de Rosa* (2020) **Vanessa Garderen** musika; Salvador Simó eta Li Jianping bikote artistikoak zuzendutako *Dragonkeeper* film luzerako (2023) **Arturo Cardelúsen** lana; Álex Pinaren *La casa de papel* telesailerako (2016) **Iván M. Lacámararen** musika; eta Antonio Hernández Núnezen *Parecido a un asesinato* (*Caminar en el tiempo* abestia) eta *El capitán Trueno y el Santo Grial* film luzeetarako (2025 eta 2011) **Luis Ivarsek** egindako konposizioak.

Lekua bete arteko sarrera librearekin, hauen bilketa ohiko informazio guneetan egin beharko da, **irailaren 13tik 19ra**: Kursaal 9etatik 20etara, eta Donostia Turismo Bulegoan, astelehenetik larunbatera 9etatik 20etara, igandean 10etatik 19etara. Belodromoak 2.700 jesarleku ditu Zinemaldian dagoeneko klasiko bat den kontzertuari eusteko prest. Zinemaldiak 73 urte beteko ditu 2025ean eta irailaren 19tik 27ra garatuko da.

## Euskadiko Orkestra y la FundaciónSGAE con el cine

Desde 2012, la Fundación SGAE coorganiza la sección no competitiva **Made in Spain**, que integra una selección de películas españolas producidas en el último año, estrenadas o no, a las que el Festival proporciona una excelente plataforma para su difusión internacional. Estas obras se proyectarán del 23 al 27 de septiembre en la Sala Berlanga de Madrid.

La Fundación creada por la Sociedad General de Autores y Editores (SGAE) entrega también el **Premio Dunia Ayaso** al mejor guion con mirada de género, que en 2025 va por su novena edición consecutiva como homenaje a la realizadora canaria fallecida en 2012.

Por su parte, el Consejo Territorial de SGAE en Euskadi apoya el **Premio al Mejor Guion de Producción Vasca**, que concede anualmente la **Asociación Profesional de Guionistas de Euskal Herria** en el propio Festival.




## Euskadiko Orkestra eta SGAE Fundazioa, zinearekin bat

2012az geroztik, SGAE Fundazioak **Made in Spain** sail ez-lehiakorra antolatzen du. Apostu honek azken urtean ekoiztako film espainiarren sorta bat osatzen du, estreinatuak izan ala ez, eta Zinemaldiak plataforma bikaina eskaintzen die film horiei guztiei nazioartean behar bezala hedatzeko. Obrak, bide batez, irailaren 23tik 27ra bitartean proiektatuko dira Madrilgo Berlanga Aretoan.

Bestalde, Autoreen eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiak sortutako Fundazioak berak ere, **Dunia Ayaso Saria** ematen du Zinemaldiaren baitan, genero -ikuspegidun gidoi onenari hain zuzen ere. Aurten bederatzigarren urtea beteko du 2012an hildako kanariar zinemagilearen omenez.

Baita ere, SGAEren Euskadiko Lurralde Kontseiluak **Euskal Produkzioko Gidoi Onenaren Saria** babesten du, **Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionalak** urteroko jaialdian bertan ematen duena.



## ¿Quién es quién en el elenco autoral?

### Gure egileen biografiak

**Augusto Algueró** (1934 - 2011) estudió solfeo y armonía en su ciudad natal, Barcelona. Dio sus primeros pasos artísticos como pianista acompañante en radio y televisión y su primer éxito, *Niña*, vio la luz en 1959, interpretada por Marco Antonio Muñoz. Contribuyó a la popularización del bolero así como de composiciones muy comerciales ya en los años 60-70 del siglo XX (*Chica ye-ye*, *Noelia*, *Tómbola*), algunas de las cuales se convirtieron en himnos. Firmó canciones para Los Bravos, Jeanette o Julio Iglesias, y en 1969 dirigió a la orquesta del Festival de Eurovisión.

Hizo notables colaboraciones dentro y fuera de festivales como el de Benidorm (donde fue compositor y director musical durante varias ediciones) para artistas de la talla de Massiel, Raphael, Concha Velasco, Joan Manuel Serrat, Rocío Jurado y otros grandes de la canción estatal.

Compuso bandas sonoras para más de 50 películas (comedia, drama, musical), por ejemplo, *Los santos inocentes* (1984) o *La escopeta nacional* (1978), junto a Mario Camus y Luis García Berlanga. Trabajó también para televisión, creando cortinas y pasajes varios para decenas de programas y series. Sin duda su legado queda en tanto que compositor, ya que tiene más de 500 canciones registradas. Está considerado toda una eminencia en la composición de canción ligera española en el siglo XX y su música perdura en la cultura popular, por abundante además de emotiva, elegante y reconocida por varias generaciones.



Entre otros, recibió el Premio BMI por *Penélope* (1998 LatAm) y el Premio de Honor de la Academia de la Música en 2005. En abril de 2003 salió a la venta el disco *Homenaje*, integrado por 17 temas compuestos por el propio Algueró y cantados por artistas tan dispares como María Jiménez, Fangoria o Papá Levante. Tras su muerte en 2011 quedó para la historia y al acervo musical español un patrimonio del que, aún hoy, sólo se conoce una mínima parte.

[Augusto Algueró Wikipedia](#)

**Augusto Alguerók** (1934 - 2011) solfeoa eta harmonia ikasi zituen bere jaioterrian, Bartzelonan. Piano-jotzaile gisa lehen urrats artistikoak egin zituen irrartian eta telebistan, eta bere lehen arrakasta, *Niña*, 1959an ikusi zuen argia, Marco Antonio Muñozek interpretatua. Boleroa eta XX. mendeko 60-70eko hamarkadetan oso konposizio komertzialak egiten lagundu zuen (*Chica ye-ye*, *Noelia*, *Tonbola*), horietako batzuk ereserki bihurtu zirela.

Los Bravos, Jeanette edo Julio Iglesiasentzako abestiak sinatu zituen, eta 1969an Eurovision jaialdiko orkestra zuzendu zuen.

Benidormekoa bezalako jaialdietan (hainbat ediziotan musikagile eta musikazuzendari izan zen han) eta jaialdietatik kanpo kolaborazio nabarmenak egin zituen Massiel, Raphael, Concha Velasco, Joan Manuel Serrat, Rocio Jurado eta Estatuko kantagintzako beste artista handi batzuentzat.

50 film baino gehiagotarako soinu-bandak konposatu zituen (komedia, drama, musikala), adibidez, *Los santos inocentes* (1984) edo *La escopeta nacional* (1978) film luzeetakoak, Mario Camus eta Luis García Berlangarekin batera. Telebistarako ere lan egin zuen, dozenaka programa eta telesailentzako gortinak eta pasarteak sortuz. Zalantzarik gabe, bere ondarea konpositore gisa geratzen da, 500 abesti baino gehiago baititu erregistratuta. XX. mendeko espainiar abesti arina delakoaren konposizioan erabateko eminentziaz jotzen da, eta bere musikak herri-kulturan irauten du hainbat belaunaldiren barrena, hunkigarria, dotorea eta aintzatetsia izateaz gain, ugaria baita.

Besteak beste, BMI saria jaso zuen *Peneloperengatik* (1998 LatAm) eta Musika Akademiaren Ohorezko Saria 2005ean, baita ere. 2003ko apirilean *Homenaje* diskoa atera zen, Alguerók berak konposatutako 17 kantuz osatua eta María Jiménez, Fangoria edo Papá Levante bezalako artista ezberdinek abestua. 2011n hil ondoren, Espainiako historiako eta musika-ondararako zati txiki bat baino ezagutzen ez den ondarea geratu zela esan genezake.

El sonido de la compositora, directora, y multi instrumentista **Alba S. Torremocha** (Salamanca, 1993) fusiona complejas texturas orquestales y melodías memorables, creando atmósferas musicales únicas y cautivadoras. A pesar de su corta edad, sus piezas han sido estrenadas alrededor del mundo, y sus bandas sonoras para películas, televisión y videojuegos continúan recibiendo menciones y galardones en festivales internacionales.



Con una formación ejemplar, Alba ha estudiado violín, composición clásica y dirección en Europa. Graduada a la cabeza de su promoción en el Centro Superior de Música del País Vasco - Musikene, más tarde obtuvo el máster en Composición para Cine en la Universidad de Nueva York (NYU), donde se graduó con honores. Ha sido reconocida por Rotary International con el Premio 'Joven del Año', y recibió la Billy Joel Scholarship y el Premio Elmer Bernstein en Nueva York. En

2016, ganó la residencia de la NYU Symphony. Combina su trayectoria en la industria cinematográfica con su investigación psicoacústica, un campo que cobra vida a través de su proyecto [Willowave](#).

[www.dawnlightstudios.com](http://www.dawnlightstudios.com)

**Alba S. Torremocha** (Salamanca, 1993) konpositore, zuzendari eta multi-instrumentistaren soinuak orkestra-egitura konplexuak eta melodia gogoangarriak uztartzen ditu, musika-atmosfera paregabe eta liluragarriak sortuz. Gaztea izan arren, bere lanak mundu osoan zehar estreinatu dira, eta pelikuletarako, telebistarako edo bideojokoetarako egindako soinu-bandek nazioarteko jaialdietan aipamenak eta sariak jasotzen jarraitzen dute, nonahi.

Formazio eredugarri bati eutsiz, Albak biolina, konposizio klasikoa eta zuzendaritza ikasi ditu Europan. Bere promozioaren buru gisa graduatua dugu Euskadiko Goi-mailako Musika Eskolan, Musikenen. Handik igaro ondoren, Zinemarako Konposizioko masterra egin zuen New Yorkeko Unibertsitatean (NYU). Rotary International delakoak 'Urteko Gaztea' Sariarekin aitortu du. Bide batez, Billy Joel Scholarship eta Elmer Bernstein Sariak ere jaso ditu New Yorken. 2016an, NYU Symphonyren egoitza lortu zuen.

[Willowave](#) proiektuaren baitan garatzen duen alorra izanik, industria zinematografikoan egindako ibilbidea eta ikerketa psikoakustikoa uztartzen ditu.



Entre otros méritos académicos, **Vanessa Garde** (Pamplona, 1984) se graduó Magna Cum Laude en Composición de Música para Cine en Berklee (Boston, USA, 2010) y obtuvo los más altos honores en el Real Conservatorio de Madrid en Piano e Interpretación.

Ha trabajado en más de 100 proyectos cinematográficos y audiovisuales, incluyendo películas como *Exodus* (dirigida por Ridley Scott), *Todos tienen un plan* (con Viggo Mortensen), *La fría luz del día* (con Bruce Willis o Sigourney Weaver) o *El cuervo* (protagonizada por John Cusack). En televisión ha trabajado en *The Titan Games* de NBC (presentado por Dwayne Johnson, la Roca), las series

*Parot* de Amazon, *Galerías Velvet* de Antena 3 (y de Netflix) o en *Lo que Escondían sus ojos* de Telecinco.

Sus colaboraciones musicales incluyen trabajar estrechamente con autores como Alberto Iglesias, David Newman, Lucio Godoy, Joey Newman, Roque Baños, Federico Jusid, K.C. Porter, Remote Control (la compañía de Hans Zimmer), Jeff Russo o MuMo Productions. También ha compartido proyectos con otros artistas,

tanto en trabajos de estudio como en directo: Plácido Domingo, David Bisbal, Sabina, Maluma o Natalia Lafourcade, entre otros.

Fue la primera mujer en dirigir la banda La Pamplonesa en 103 años. Ha dirigido conciertos con la Orquesta Sinfónica de Navarra y el Orfeón Pamplonés. Ha liderado sesiones de grabación en ciudades como Londres, Budapest y Los Ángeles. Durante más de cinco años fue profesora asistente en Berklee Valencia. Enseña producción musical y tecnología para música en medios audiovisuales y colabora con instituciones como ESMUC, Música Creativa, Katarina Gurska o la Fundación SGAE. Actualmente trabaja entre Madrid, Navarra, Valencia y Los Ángeles.

[www.vanessagarde.com](http://www.vanessagarde.com)

Bestelako aitorpen akademikoren artean, **Vanessa Gardek** (Iruñea, 1984) Magna Cum Laude graduazioa jaso zuen Zinemarako Musika Konposizioan, Berkleen (Boston, AEB, 2010), eta ohore handienak lortu zituen Madrilgo Erret Kontserbatorioan, Piano eta Interpretazioan hain zuzen. 100 zinema eta ikus-entzunezko proiektu baino gehiagotan egin du lan, besteak beste, *Exodus* (Ridley Scottek zuzendua), *Todos tienen un plan* (Viggo Mortensenekin), *La fría luz del día* (Bruce Willisekin edo Sigourney Weaverrekin) eta *El cuervo* (John Cusack protagonista) filmetako banda sonoroetan.

Telebistan NBCren *The Titan Games* delako musikagintzan (The Roc Dwayne Johnsonek aurkeztua), Amazonen *Parot* seriean, Antena 3eko *Galerias Velvet* delakoan (Netflixkoa berau ere) edo Telecincoren *Lo que escondían sus ojos* telesailaren bandan.

Bere kolaborazio musikalak aipatzerakoan Alberto Iglesias, David Newman, Lucio Godoy, Joey Newman, Roque Baños, Federico Jusid, K.C. Porter, Remote Control (Hans Zimmerren konpainia), Jeff Russo edo MuMo Productions bezalako egileekin estuki lan egin duela esan dezakegu. Zenbait artistarekin ere partekatu ditu proiektuak, estudioko lanetan zein zuzenekoetan: Plácido Domingo, David Bisbal, Sabina, Maluma edo Natalia Lafourcade, besteak beste.

103 urtetan La Pamplonesa banda zuzentzerik izan duen lehen emakumea dugu. Erabateko kontzertuak zuzendu ditu Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin eta Iruñeko Orfeoiarekin. Londres, Budapest eta Los Angeles hirietan grabazio saioak zuzendu ditu. Bost urte baino gehiagoz irakasle laguntzailea izan zen Berklee-Valentzian. Musika-ekoizpena eta musikarako teknologia irakasten ditu ikus-



entzunezko baliabideetan, eta ESMUC, Música Creativa, Katarina Gurska edo SGAE Fundazioarekin kolaboratzen du. Gaur egun, Madrilen, Nafarroan, Valentzian eta Los Angelesen egiten du lan.



Afincado en Los Ángeles, California, la banda sonora para *Buñuel en el laberinto de las tortugas* de **Arturo Cardelús** fue calificada por The Wrap como una de las mejores del año, ganó el Premio a la Mejor Música en el Festival de Annecy y fue nominada al Goya y al premio de la IFMCA (Asociación Internacional de Críticos de Música de Cine). Cardelús también ha compuesto la música de *In a Heartbeat*, la miniserie original de Netflix *Llámame Francisco*, el drama *Centurion XII* protagonizado por Billy Zane, y el thriller de Netflix *Black Beach*, dirigido por el nominado al Óscar Esteban Creso.

Entre sus trabajos más recientes se encuentran *Descendants* (Disney), *Dragonkeeper* —por la que ha recibido una nueva nominación al Premio Goya a Mejor Música Original—, la exposición inmersiva Frida Kahlo y la banda sonora de la serie *Terra Alta*, basada en las novelas de Javier Cercas. Una de sus obras más reconocidas, *Con Aire de Tango*, fue un encargo de los Solistas de la Filarmónica de Berlín y se publicó en un disco de NAXOS junto con otras obras de música de cámara del compositor. En 2016, su trayectoria en el ámbito de la música de concierto fue reconocida con su nombramiento como Associate de la Royal Academy of Music de Londres.

Nacido en Madrid, estudió piano en la Royal Academy of Music de Londres, la Academia Franz Liszt de Budapest, el Conservatorio Superior de Música de Salamanca y el Conservatorio Profesional de Guadalajara. Posteriormente orientó su carrera hacia la composición y la música para cine, formándose en Berklee College of Music (Boston), donde se graduó *summa cum laude* y recibió el máximo galardón del departamento de composición.

[www.arturocardelus.com](http://www.arturocardelus.com)

The Wrap-en aburuz Los Angelesen (Kalifornia) bizi den **Arturo Cardelús**en *Buñuel en el laberinto de las aceitunas* filmerako konposatutako soinu-banda bere

sasoian onena izena zen, berorrekin Annecyko Jaialdian Musika Onenaren Saria irabazi zuen eta Goya eta IFMCA (Zinema Musika Kritikarien Nazioarteko Elkarte) sarietarako ere izendatu zuten. Cardelusek *In a Heartbeat*, *Llámame Francisco* Netflixen minisail originala, Billy Zane protagonista duen *Centurion XII* drama eta Esteban Crespo Oscar Sarietarako izendatuak zuzendutako Netflix bereko *Black Beach* thrillerraren musika ere konposatu ditu.

Bere lan berrienen artean dira: *Descendants* (Disney), *Dragonkeeper* – Jatorrizko Musika Onenaren Goya Sarirako beste izendapen bat jaso duena –, Frida Kahlo izeneko erakusketa inmersiboa eta *Terra Alta* saileko soinu banda, Javier Cercasen eleberrietan oinarritua, azken hau. Bere lanik ospetsuenetako bat, *Con Aire de Tango*, Berlingo Filarmonikako Bakarlarien enkargu bat izan zen, eta NAXOSen disko batean argitaratu zen, konpositorearen ganbera-musikako beste lan batzuekin batera hain zuzen. 2016an, Londresko Royal Academy of Musiceko kide izendatu zutenean, aitortu zioten kontzertu-musikaren arloan egindako ibilbidea.

Madrilen jaioa, pianoa ikasi zuen Londresko Royal Academy of Music delakoan, Budapesteko Franz Liszt Akademian, Salamancako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Guadalajarako Kontserbatorio Profesionalean. Ondoren, bere karrera zinemarako konposizio eta musikagintzara bideratu zuen, Bostongo Berklee College of Music-en trebatuz, non *summa cum laude* graduatu baitze, konposizio saileko sari nagusia jasoz.

**Iván M. Lacámara** (Zaragoza, 1977) es un compositor y productor musical multidisciplinar de amplia formación, nacido en una familia de músicos. Especializado en la composición de bandas sonoras ha compuesto y producido la partitura de series tales como: *Un paso adelante*, *Los hombres de Paco*, *El Barco*, *El embarcadero*, *Sky Rojo*, *Vis a vis*, *Zorro*, *Laura y sus misterios* y el éxito mundial *La casa de papel*.

Su música ha sido interpretada y grabada por diversas orquestas (Real Orquesta Sinfónica de Sevilla, Orquesta Sinfónica de Tenerife, Budapest Symphony Orchestra, City of Prague Philharmonic Orchestra, Savaria Symphony Orchestra, etc), así como interpretada en algunos de los festivales de música de cine y televisión más



importantes de Europa (Fimucité, Fimucs, Mosma, Sonafilm, Arena Film Music Festival).

Ha sido galardonado con el premio europeo Camile Award 2022 (ECSA) a la mejor banda sonora para serie de Tv, por su música para *La casa de papel*, así como tres veces ganador del Premio Música para el audiovisual español (Musimagen), y ganador del Jerry Goldsmith Award 2019.

En los últimos años ha sido invitado a diversas charlas organizadas por entidades tales como Berklee Valencia, Fundación SGAE, LabSeries Valencia, Musimagen Brasil, Fimucité, Mosma, Fimucs y Loyola University, donde también es profesor asociado en el Grado de creación y producción musical.

[www.ivanmlacamara.com](http://www.ivanmlacamara.com)

**Ivan M. Lacámara** (Zaragoza, 1977) musikari-familia batean jaiotako diziplina anitzeko musikagile eta ekoizlea dugu. Soinu-banden konposizioan espezializatua, hainbat serieren partitura konposatu eta ekoitzi du, hala nola: *Un paso adelante*, *Los hombres de Paco*, *El Barco*, *El embarcadero*, *Sky Rojo*, *Vis a vis*, *Zorro*, *Laura y sus misterios* eta *La casa de papel*, berau, mundu mailako arrakasta. Bere musika hainbat orkestrak interpretatu eta grabatu dute (Sevillako Erret Orkestra Sinfonikoa, Tenerifeko Orkestra Sinfonikoa, Budapest Symphony Orchestra, City of Prague Philharmonic Orchestra, Savaria Symphony Orchestra, etab.), baita Europako zinemaldi garrantzitsuenetako batzuetan interpretatu ere (Fimucité, Fimucs, Mosma, Sonafilm, Arena Film Music Festival).

Camile Award 2022 (ECSA) Europako saria eman diote telebista-serierako soinu-banda onenari, hain zuzen ere, *La casa de papel* filmerako egindako musikagatik, eta hiru aldiz irabazi du Espainiako ikus-entzunezkoentzako Musika Saria (Musimagen), baita 2019ko Jerry Goldsmith Award saria delakoa ere.

Azken urteotan Berklee Valencia, SGAE Fundazioa, LabSeries Valencia, Musimagen Brasil, Fimucité, Mosma, Fimucs eta Loyola University bezalako erakundeek antolatutako hainbat hitzalditara gonbidatu dute. Hemen Musika ekoizpenean eta sorkuntzan Gradua ematen du irakasle asoziatu gisa.



Si algo define a **Luis Ivars** (Alicante, 1960) como creador e intérprete, es su eclecticismo. Desde sus inicios en la música clásica, sus experiencias musicales han pasado por estilos como el pop, blues, rock, jazz, la música étnica o electrónica.



Durante veinte años ha realizado giras como teclista a nivel nacional e internacional (Mediterráneo, Danza Invisible), que acabó compartiendo con el cine en los 90. Desde entonces, ha compuesto un centenar de bandas sonoras para películas, documentales, cortometrajes, series de televisión, exposiciones museísticas, videodanza y teatro, como *Tabarka*, *Tiempos de Azúcar*, *La Dama Boba* o *El Capitán Trueno y el Santo Grial*, *Parecido a un Asesinato* o *22 Ángeles*, entre otros proyectos, que le valieron nominaciones a los Premios Goya en 2015, 2016 y 2017.

Su inmersión en las músicas de la antigüedad le ha llevado a crear paisajes sonoros para exposiciones que han sonado en museos arqueológicos como el Marq (mejor museo europeo 2004), La Valltorta (Tirig, Castellón), la Comunidad de Madrid, Valencia, Lisboa, Huelva o Valle de los Neandertales, entre otros. Determinado defensor de la importancia social de los creadores, es Presidente Honorífico de Musimagen, la Asociación española de Compositores para Audiovisual y ha ejercido la presidencia de FFACE (Federation of Film & Audiovisual Composers of Europe) siendo uno de sus creadores. Es Vicepresidente Honorífico de ECSA (European Composers & Songwriters Alliance) y desde 2019 preside la Alianza Audiovisual, la gran federación estatal de los profesionales del audiovisual. Entre sus premios y menciones, destacan: Premio Música para la Imagen del Festival Internacional de Cine de Alicante (2025), Premio Miguel Hernández por trayectoria profesional consolidada en el ámbito de la cultura audiovisual (2021, también el en el Festival de Alicante), Medalla de Honor del Ateneo de Alicante (2017).

[www.luisivars.com](http://www.luisivars.com)

**Luis Ivars** (Alacant, 1960) sortzaile eta interprete gisa definitzen badu zerbaitek, bere eklektizismoa da. Musika klasikoan hasi zenetik, pop, blues, rock, jazz, musika etniko edo elektronikoa bezalako estiloetatik igaro dira bere esperientzia musikalak. Hogei urtez, teklatu jotzaile lanak egin ditu Estatuan eta nazioartean (Mediterraneo, Danza Invisible taldeetan adibidez), eta 90eko hamarkadan zinemarekin partekatzen hasi zen horren propioa zaion egile-jarioa. Harrezkero, ehun bat soinu-banda osatu ditu pelikuletarako, dokumentaletarako, film laburretarako, telesailletarako, museo-erakusketetarako, bideodantzarako eta antzerkirako (*Tabarka*, *Tiempos de Azúcar*, *La Dama Boba*, *El Capitán Trueno* y *el Santo Grial*, *Parecido a un Asesinato* edo *22 Ángeles*, besteak beste). Horietako zenbait lanek Goya Sarietan 2015eko, 2016ko eta 2017ko izendapenak ekarri dizkiote.

Antzinateko musiketan murgildua denez ere, soinu-paisaiak sortu ditu nonahi, museo arkeologikoetan entzun izan diren hamaika erakusketetarako: Marq museoa (Europako museorik onena 2004), La Valltorta (Tirig, Castelló), Madrilgo Erkidegoa, Valentzia, Lisboa, Huelva eta Neanderthalen Haranean, besteak beste. Sortzaileen elkarten eta berorien garrantziaren defendatzaile sutsua da Musimagen, Ikus-entzunezkoetarako Konpositoreen Espainiako Elkartearen Ohorezko Presidente, eta FFACE delakoaren (Federation of Film & Audiovisual Composers of Europe) presidente izan dela. ECSAko (European Composers & Songwriters Alliance) Ohorezko Presidenteordea da, eta 2019tik Ikus-entzunezkoen Aliantzaren buru da, ikus-entzunezkoen profesionalen Estatuko federazio handiaren burua, alegia. Azkenaldian erdietsitako sari eta aipamenen artean honako hauek nabarmentzen dira: Alacanteko Nazioarteko Zinema Jaialdiko Irudiarentzako Musika Saria (2025), Miguel Hernández Saria ikus-entzunezko kulturaren esparruan finkatutako ibilbide profesionalagatik (2021, baita Alacanteko Zinemaldian ere) edo Alacanteko Ateneoko Ohorezko Domina (2017).



SSIFF Donako Nazioak  
Festival de San Sebastián  
International Film Festival



25

EUSKADIKO  
ORKESTRA

26



fundación  sgae fundazioa



**Komunikazioa SGAE / SGAE Fundazioa • Martin Calvo**  
620 827 207 • mcalvob@sgae.es • @sgaeactualidad

**Comunicación Fundación SGAE • Andrea Rullán**  
683 436 645 • prensa@fundacionsgae.org • @fundacionsgae